



GIPUZKOA



ETA EUROPAR BATASUNA

105. INFORMAZIO BULETINA

> 2015ko Azaroa



GIPUZKOA



Gipuzkoako
Foru Aldundia
Ogasun eta Finantza
Departamentua
Departamento de
Hacienda y Finanzas



ETA EUROPAR BATASUNA

> 2015ko Azaroa

NABARMENDU BEHARREKOA

> Donostia 2016ko Kulturaren Europako Hiriburua, ofizialki aurkeztu dute

Azaroaren 12an aurkeztu zuen Donostiak ofizialki Bruselako Arte Ederren Zentroan 2016ko Kulturaren Europako Hiriburu gisa bere kultur egitaraua. Leloa "Elkarrekin bizitzea" izango da. Ekitaldian izan ziren eurodiputatuak, erakundeetako ordezkariak, gizarte arloko ordezkariak eta Belgikako prentsa. Bertan, proiektuaren zuzendari nagusiak, Pablo Berástegui, kulturak elkarbizitza hobea eraikitzeko tresna gisa betetzen duen rolaren balioa nabarmendu zuen. Era berean, Donostiako alkateak, Eneko Goiak, eskainitako hitzaldian, Donostia 2016k urteko 365 egunetako programazioa eskaintzea nahi duela adierazi zuen, horrela, hiria bisitatzen duenak "kultura kontinente osora zabaltzen duen itsasargia" dela ikus dezan.

Xabier Payak, kultur egitarauaren zuzendariak, azaldutakoaren arabera, urtarriletik abendura bitartean, Donostiak "audientzia guztietarako" 400 kultur proposamen baino gehiago bilduko ditu. "Erakusketak, kontzertuak, antzerkia, musika, dantza, literatura eta gastronomia izango dira; hori guztia, 500 artista baino gehiago batzen dituen egitarauan txertatuta".

Egitaraua Bruselan ofizialki aurkeztu ostean, Donostia 2016 Europako hainbat tokitara joango da bere proiektua eta programazioa erakustera. Horretarako, 2015eko azarotik datorren urteko martxora bitartean hainbat tokitan egingo dituzten nazioarteko dozena bat aurkezpenek osatzen duten agenda zabala antolatu dute. Aurkezpenak Espainiako eta Europako gainerako herrialdeetako hainbat hiritan egingo dituzte eta hauek nabarmendu behar dira horien artean: Bartzelona, Bordele, Pilsen, Madril, Wroclaw eta Berlin.

Informazio gehiago:

<http://dss2016.eu>



> **Gipuzkoako Foru Aldundiak eta AFEDEGIk Pirinio Atlantikoetako, Nafarroako eta Aragoiko kirol-ordezkariekin egindako topaketan hartu dute parte**

Pirinio Atlantikoetako Departamenduko Batzordeak, CD64k, gonbidatuta, Gipuzkoako Foru Aldundiko kanpoko harremanetarako ordezkariak, AFEDEGIko presidentearekin, Jesús Fernándezekin, eta Gipuzkoako zazpi federaziotako (neguko kirolak, errugbia, piraguismoa, igeriketa, hipika, mendia eta triatloia) ordezkariekin batera, Pauen izan dira Pirinio Atlantikoetako, Nafarroako eta Aragoiko kirol-erakundeen federazioen eta ordezkarien artean egindako topaketan.

Topaketaren helburua homologoen arteko topaketa egitea eta kirol-eragileen arteko mugaz gaindiko lankidetzaz bultzatzea eta erraztea izan da.

Ekimenaren lehen zatian, 4 lurraldeetako 70 lagun inguruk aurkeztu zituen abian dauden lankidetzaz esperientziak (haitetako askotan hartzen du parte Gipuzkoak) eta etorkizun laburreko lankidetzako aurreikuspenak. Bigarren zatian, aldiz, giro lasaian, federazio homologoen arteko topaketak egin zituzten.

Ekimenean izandako Gipuzkoako federazioek egindako balorazioa oso positiboa izan zen egindako harremanak zein Aldundiarengandik jasotako erakunde mailako babesak zirela eta.

Informazio gehiago:

<http://www.kirolak.net>



> **Gipuzkoak Esloveniarekin lankidetza ekonomikorako bideak aztertu eta loturak bultzatuko ditu**

Gipuzkoako Ahaldu Nagusia, Markel Olano, Esloveniako Errepublikako ordezkariekin bildu da lankidetza-akordioak sakontzeko bideak arakatu eta loturak bultzatzeko. Bi horiek harreman arinak dituzte, bereziki arlo komertzialean, kulturean eta gastronomikoan, eta sinergia horiek beste esparru batzuetara zabaltzeko aukerak aztertu dituzte.

Bileran ahaldu nagusiak azaldu duenez, ekonomia da zuzentzen duen foru-gobernurako lehentasun nagusia eta Esloveniako ordezkariari lurraldeak eskaintzen dizkien aukerak eta indarguneak zein diren azaldu dizkie. Horrekin lotuta, duela gutxi aurkeztu duten Gipuzkoako Ekonomia Indarberritzeko Planaren helburu nagusiak zehaztu eta etorkizunean garatuko dituzten laneko ildoak aurreratu ditu. Esloveniako ordezkariak, bestalde, Errepublikaren gaurkotasanari buruzko laburpen txikia egin du, errefuxiatuen gaia barne. Era berean, Gipuzkoako eragile ekonomikoekin harremanen sarea sendotzeko eta areagotzeko erabat prest daudela jakinarazi dute.

Esloveniako Errepublikako enbaxadoreak, Aljaž Gosnar-ek, eta ohorezko kontsul izendatuko dutenak, Pedro Esnaolak, hartu dute parte.

Informazio gehiago:

http://www.gipuzkoa.eus/eu/aktualitatea/berriak/berri-xehetasun/-/journal_content/56_INSTANCE_a23dxaTNqV38/10180/1846155/32195



KOHESIO-POLITIKA

> 2014-2020 Espazio Atlantikoko Lankidetzako Programa Operatiboa onartu dute

Batzordeak azaroan onartu du 2014-2020ko Espazio Atlantikoko Nazioz gaindiko Lankidetzako Programa.

185,3 milioi euroko aurrekontua du eta, zenbateko horretatik, 140 milioi euro EGEFek (Eskualde Garapenerako Europako Funtsa) emango ditu. 2014-2020 Espazio Atlantikoko Programa Operatiboak EBko kide diren bost estatutako 38 eskualde atlantikoren arteko lankidetzak bultzatzen du: Irlanda, Espainia, Frantzia, Portugal eta Erresuma Batua, Kanariar uharteetako (Espainia) eskualde ultraperiferikoak eta Azoreetako eta Madeirako (Portugal) eskualde autonomoak barne.

Hauek dira Programaren lau lehentasunak:

- Berrikuntza eta lehiakortasuna bultzatzea, eta hazkunde adimentsua bizkortzea.
- Baliabideak modu eragingarrian erabiltzen duen ekonomia bultzatzea, eta energia berriztagarriak sustatzea.
- Lurraldearen erresilientzia sendotzea jatorri naturaleko, klimatikoko eta gizatiarreko arriskuen aurrean, lurraldea hobeto babesten eta kudeatzen laguntzeko.
- Bioaniztasuna babestea eta nortasun kulturala eta naturala bultzatzea.

Informazio gehiago:

<http://www.coop-atlantico.com/>



> **Batzordeak arrantza eta akuikulturako Espainiako sektoreetarako programa operatiboa onartu du. 1.600 milioi euroko inbertsioa aurrez ikusi du**

Europako Batzordeak Europako Itsaso eta Arrantza Funtsaren (FEMP) Espainiarako 2014-2020ko Programa Operatiboa onartu du. Horren helburua itsasoko, arrantzako eta akuikulturako sektoreetan inbertsioak bultzatzea da.

Gutxi gorabehera, 1.600 milioi euroko zenbatekoa izango du Europako Itsaso eta Arrantza Funtsaren (FEMP) bidez 2014-2020 aldirako. Zenbateko horretatik, 1.200 milioi euroko finantzaketa, gutxi gorabehera, EBtik iritsiko da eta proposatutako inbertsioa ingurumenari dagokionez iraunkorrak eta ekonomikoki sendoak diren itsas proiektuetara, arrantzara eta akuikulturara bideratuko da.

Europako Itsaso eta Arrantza Funtsaren (FEMP) Espainiako Programa Operatiboaren lehentasunak hauek dira:

- Ingurumenaren ikuspegitik iraunkorra, baliabideen erabilerari dagokionez eragingarria, berritzailea eta lehiakorra den, eta ezagutzan oinarrituta dagoen arrantza bultzatzea.
- Ingurumenaren ikuspegitik iraunkorra, baliabideen erabilerari dagokionez eragingarria, berritzailea eta lehiakorra den, eta ezagutzan oinarrituta dagoen akuikultura bultzatzea.
- Arrantza Politika Komuna aplikatzea.
- Enplegua eta lurralde-kohesioa bultzatzea.
- Komertzializazioa eta eraldaketa bultzatzea.
- Itsasoko Politika Integratua aplikatzea.
-

Informazio gehiago:

<http://www.magrama.gob.es/es/pesca/temas/fondos-europeos/femp/>



> Eusko Jaurlaritzak Europako Hizkuntza Aniztasunerako Ibilbide Orria aurkeztu du

Eusko Jaurlaritzak, Hizkuntza Aniztasunaren Europako Sarearen (NPLD - Network to Promote Linguistic Diversity) presidente gisa, Europako Hizkuntza Aniztasunerako Ibilbide Orria argitaratu du.

Bruselan Eleaniztasunaren, Immigrazioaren eta Ekonomiaren inguruan egindako NPLDren goi mailako konferentziaren baitan, Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako sailburuordeak, Patxi Baztarrikak, Ibilbide Orria aurkeztu du. Orriak EBrako hizkuntza-politika propioa eta European hizkuntza-aniztasuna bermatuko duena aldarrikatzen du Batasuneko erakundeetarako. Konferentzia horretan, besteak beste, eurodiputatuek eta Batzordeko edo Kontseiluko ordezkariak hartu dute parte.

Konferentzia horretan, gainera, "Euskararen Balio eta Eragin Ekonomikoa" izeneko txostena aurkeztu dute. Ikerketa Eusko Jaurlaritzak prestatu du eta hizkuntza ez-hegemoniko bati buruz ezaugarri horiekin egindako lehenengoa izan da.

Informazio gehiago:

http://www.irekia.euskadi.eus/uploads/attachments/7257/EU_FINAL_ROADMAP.pdf?1447780010



> **Parlamentuak 2014-2020 aldirako Kohesio Politika soiltzearen eta emaitzetara bideratzearen alde egin du**

Europako Parlamentuak azaroaren 26an egin zuen osoko bilkurak 2014-2020 aldi berrian Kohesio Politikan sinplifikazioa eta eragingarritasuna bilatzeari buruzko eztabaida jaso zuen. Egindako eztabaida haren ondorioz, Batzordeak soiltzeari buruzko irizpide zehatzak txertatu beharko litzateke ebatzi du Parlamentuak. Horren helburua kide diren estatuei eta eskualdeei administrazioko karga eta, Estatu eta toki mailan ikusten den gehiegizko araudia desagerrarazteari edo, gutxienez, nabarmen gutxitzeari buruzko beren betebeharrari buruzko informazioa ematea da.

Horrekin lotuta, Parlamentuak identifikatutako esparruen artean daude kontratazio publikoko prozesuak, proiektu-proposamenen hautaketa eta jarraipeneko eta kontroleko jarduerak, hizkuntza eta prozedurak, eta EBko aurrekontua emaitza hautemangarrietara bideratzeko lanak.

Gainera, Parlamentuak aipatu duenez, EBko eskualde mailako finantzaketako pakete integratua eskaintzeko aukera dago interfaze bakarraren edo "leihatila bakarraren" bidez. Horrela, ahal den neurrian, prozesu eta prozedura komunetara aurrera egingo litzateke.

Parlamentuak Batzordeari honako hau eskatu dio: kide diren estatuei eta eskualdeei ibilbide-orria emateko kontroleko, jarraipeneko eta jakinarazpeneko jarduerak arrazionalizatzeko eta soiltzeko (baita onuradunentzat ere) gaur egungo itoguneak desagerrarazi ahal izateko.

Informazio gehiago:

<http://www.europarl.europa.eu/sides/getDoc.do?pubRef=-//EP//NONSGML+MOTION+B8-2015-1231+0+DOC+PDF+V0//ES>



EUROPA 2020 ESTRATEGIA

> Europako Batzordeak eta Inbertsioen Europako Funtsak EaSI programarekin 237 milioi euro iragarri dituzte Europako mikroenpresei laguntzeko

Inbertsioen Europako Funtsak (IEF), Enplegurako eta Berrikuntza Sozialerako Europako Programaren baitan (EaSI izenekoa), mikrofinantzaketako sei erakunderekin berme-akordioak sinatu ditu Europako mikroenpresei finantzaketarako sarbidea irekitzeko asmoz. Guztira, helburua mailegutun 237 milioi euro mobilizatzea da Europa osoko 20.000 mikroenpresari laguntza emateko.

IEFek ez dizkie enpresei zuzeneko laguntzak ematen eta haietan ez du zuzenean inbertsiorik egiten ere. Horretarako finantza-bitartekari egokiak hautatzen ditu eta haiei ematen dizkie maileguak estali ahal izateko bermeak. IEFren eta finantza-erakundeen artean sinatutako sei berme-akordioak beren mikroenpresak sortu edo garatu nahi dituztenei zuzenduta daude eta, bereziki, lan-merkatuan sartzeko edo finantzaketara sarbidea izateko zailtasunak dituzten pertsoneri.

Europako Batzordearen izenean IEFek kudeatutako 96 milioi euroko EaSI Bermeak 2014-2020 aldian mailegutun 500 milioi euro baino gehiagoko efektu biderkatzailea izango duela espero da. Horren guztiaren helburua Europako enplegua eta hazkundera bultzatzea izango da hurrengo 15 urteotan, eta enpresa sozialentzako 1.000 kreditu eta 30.800 mikrokreditu liberatuko dituzte guztira.

Sinatutako lehen 6 akordioen artean dago Laboral Kutxa. Euskadiko erakundeak bere gain hartutako zenbatekoa 75 milioi eurokoa da (2015 eta 2018 arteko guztizko 237 milioi euroko guztizkoari dagokionez), eta sinatu duten sei erakundeen artean, horixe izango da zenbateko handiena (guztizkoaren ia heren bat). Gainerako IEFen akordioak erakunde hauekin sinatu dituzte: Qredits Microfinanciering (Herbehereak), Association pour le Droit à l'Initiative Economique (Frantzia), Microfinance Ireland (Irlanda), PerMicro (Italia) eta Nextebank (Errumania).

Informazio gehiago:

<http://ec.europa.eu/social/main.jsp?langId=en&catId=1081&newsId=2355&furtherNews=yes>



> Euskadiko 500 gazte inguruk hasi dute nazioartekotze-esperientzia

Eusko Jaurlaritzaren Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Sailak, Nazioartekotze Beken eta Global Training Beken programen bidez, urtero, erakunde laguntzaileen sare handiarekin batera, Euskadiko 500 gazte ingururi laguntzen die programa horien laguntzaile diren Euskadiko enpresetan eta nazioarteko enpresa eta erakundeetan praktikak atzerrian egin ditzaten.

Hauk dira bi modalitateak: nazioartekotzearekin lotutako bekek (100 beka urtero) eta Global Training bekek (370 beka). Bien helburua atzerriko merkataritza arloko eta, oro har, nazioartekotze arloko profesionalak trebatzea da Euskadiko enpresek esparru horretan langile kualifikatuak izan ditzaten. Era berean, euskal gazteentzako aukera aberasgarria da beste esparru kultural batzuetan esperientzia eta ezagutza eskura dezaten. Horretarako, prestakuntza eta mugigarritasuna eskaintzen dizkiete, eta lan-merkatuan barneratzeko gaitasunak ematen dizkiete.

Eusko Jaurlaritzaren Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Saiak Global Training bekek kudeatzen laguntza eskaintzen duten erakundeen babes-sare zabala du: Euskadiko hiru merkataritza-ganberak; Euskal Herriko Unibertsitatea; Mondragon Unibertsitatea; Deustu Unibertsitatea; Makina-erreminta Fabrikatzaileen Elkarte eta Ikaslan Garapen eta Donostiako Sustapena; Novia Salcedo Fundazioa; eta Confebasken, Adegiren eta Txorierrri zentroaren arteko aliantza; eta Hetel.

Nazioartekotze-bekek 2,4 milioi euroko kontu-saila izan dute 2015ean. Global Training beken deialdirako, 2015eko ekitaldian, 3,2 milioi euroko zenbateko ekonomikoa izan da gehienez 370 beka finantzatzeko. Bekek sei hilabeteko iraupena izan dute.

Urteko aurkezpen-ekitaldia Gipuzkoako Bazkundean egin zuten azaroan eta bertan aurkeztu dituzte bi programak ofizialki prentsaren eta erakunde laguntzaileen aurrean. Horrez gain, parte hartu duten gazteak biltzeko balio izan du.

Informazio gehiago:

<http://www.irekia.euskadi.eus/eu/news/29349-470-jovenes-euskadi-inician-experiencia-internacionalizacion>



> Euskadiko 2050erako Klima Aldaketaren Euskadiko Estrategia aurkeztu du

Eusko Jaurlaritzako Kanpo Harremanetarako idazkari nagusia Europar Batzordeko Batzorde Ekonomikoak eta Sozialak eta Eskualdeen Batzordeak elkarrekin antolatutako konferentzian izan da 2050erako Klima Aldaketaren Euskadiko Estrategia berriaren ibilbide-orria azaltzeko asmoz. Horren helburua eskualdeak, hiriak eta gizarte zibila Nazio Batuen Goi Bilerarako prestatzea izan da. Bilera Parisen (COP21) egingo da.

Ekainean onartu zuen Eusko Jaurlaritzak 20150erako Klima Aldaketaren Euskadiko Estrategia. Plan horrek Europako irizpideak jasotzen ditu eta euskal gizarte konprometitu sendotzeko eta ekonomia iraunkorra eta lehiakorra ezartzeko oinarriak finkatzen ditu.

2002. urtean onartu zuten 2002-2020 Garapen Iraunkorraren Euskal Ingurumen Estrategia. Plan hark Berotegi Efeztuko Gasen igorpenak mugatu eta hurbide-gaitasuna gehitzen zituen. 2050erako Klima Aldaketaren Euskadiko Estrategia berriak 2030. urterako negutegi-efektuko gasen igorpenak % 40 gutxitzeko helburua ezarri du 2005. urtearekin, erreferentzia-urtearekin, alderatuta. Ondoren, 2050. urterako, helburua igorpenak % 80 arte gutxitzea da.

Informazio gehiago:

<http://www.irekia.euskadi.eus/eu/news/29552-gobierno-vasco-defiende-bruselas-estrategia-cambio-climatico-2050>



DOKUMENTU INTERESGARRIAK

> **INFODAY HORIZONTE 2020 Garraio adimentsua, ekologikoa eta integratua**

SPRI Taldeak azaroaren 16an Gipuzkoako Aldundiarekin batera antolatutako jardunaldian ezagutarazi zuten garraioarekin lotutako Horizon 2020ren Europako funtsetara sarbidea izateko modua.

Horizon 2020 ikerkuntza eta berrikuntza 2014-2020 aldian bultzatzeko Europako programa da eta 80.000 milioi euro inguruko zenbatekoa du.

Euskadiko hiru lurraldeetan HORIZON 2020 programa ezagutarazteko asmoz antolatutako sei jardunaldietako laugarrena izan da hori.

Informazio gehiago:

<http://www.spri.eus/berriak-spri/jardunaldiak/teknologia-infoday-horizonte-2020-garraio-adimenduna-ekologikoa-eta-integratua-aurkezpenak>

> **Euskadiko EGEF 2007-2013 Programa Operatiboak I+G+b arloko 2.800 proiektu baino gehiago bultzatu zituen**

Estrategia Empresarial aldizkarian, Europari buruzko atalean, argitaratutako artikuluak Europako Egitura eta Inbertsio Funtsak Euskadin aurreko programazio-aldian erabiltzearekin lotuta.

2007-2013ko Euskadiko EGEF Programa Operatiboak 240,7 milioi euroko komunitateko laguntza programatu zuen. Horri esker, % 50ean, 481 milioi euroko guztizko inbertsioa finantzatu ahal izan zuten elkarrekin. 2014ko abendura arte, Europako Batzordeari gastuaren % 78,35 ziurtatu zitzaion (377 milioi euro). Gainerakoa, % 100 osatzeraino, 2015eko abenduaren 31 baino lehen ziurtatuko dutela aurrez ikusi dute.

Informazio gehiago:

<http://www.estrategia.net/estrategia/Uni%C3%B3n%20Europea/tabid/670/ItemID/54260/View/Details/Default.aspx>



> Energiaren Batasun Egoera, 2015

Europa 2020 Estrategiaren “Energiaren Batasuna” Europako ekimen enblematikoaren helburua karbono-igorpen baxuko ekonomiaranzko bidean aurrera egitea da. Horrekin lotuta, urtearen hasieran, Batzordeak Batasun horren egoerari buruzko informazioa emateko konpromisoa hartu zuen bere gain gai garrantzitsuenak landu eta gaiaren inguruko beharrezko eztabaida bultzatu ahal izateko.

Testuinguru horren baitan, orain gutxi argitaratu dute Energiaren Batasun Egoerari buruzko lehen txostena. Lan horretan agerian geratzen dira duela bederatzita hilabete Batasun horren esparru-estrategia onartu zutenetik gai horren inguruan egin diren aurrerapen esanguratsuak. Txostenak aldi horretan lortutako aurrerapenak zehazten ditu. Era berean, 2016rako ekintza-esparru nagusiak ezarri eta nazio, eskualde eta Europa mailako ondorio egokiak azaltzen ditu.

Informazio gehiago:

http://ec.europa.eu/priorities/energy-union/state-energy-union/index_en.htm



EUROPAKO DEIALDIAK

Jarraian, Gipuzkoatik interesgarriak izan daitezkeen eta azken hilabeteen argitaratutako deialdi nagusiei egindako erreferentziak biltzen dira. Deialdiak aukeratzeko orduan, irizpide gisa hartu dira horien gaia, hautagaitzak aurkezteko epea, egokitasuna eta hautagaiak izan daitezkeen eragileen aukeragarritasuna.

- **Hiri Garapen Iraunkor eta Integratuko estrategiak hautatzeko deialdia. 2014-2020 Hazkunde Iraunkorreko EGEF Programa Operatiboa (Ogasun eta Administrazio Publikoen Ministerioa)**
- **Hiri Garapen Iraunkor eta Integratuko estrategiak hautatzeko deialdia. 2014-2020 Hazkunde Iraunkorreko EGEF Programa Operatiboa (Ogasun eta Administrazio Publikoen Ministerioa).**
- **INTERREG-MED Programa Operatiboaren proposamenen deialdia. Proiektu horizontalak.**
- **HORIZON 2020. Ekonomia berdea**
- **HORIZON 2020. ETE-en berrikuntzari laguntza hobea emateko.**
- **Arrazismoa, xenofobia, homofobia eta beste intolerantzia modu batzuk prebenitzeko eta haiei aurre egiteko proiektu transnazionaleri laguntza emateko jardueretarako diru-laguntzak (JUST/2015/RRAC/AG)**
- **MEDIA programa. Audientzia Zinematografikoaren Garapenerako Laguntza (EACEA 22/2015)**
- **MEDIA programa. Merkatuetara Sarbidea izateko laguntza (EACEA 15/2015)**